

NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA



ETXETIK PLAZARA

erLagunik onena

SARIA:
LINDDURRENBORDA
sagardotegian
bi lagunentzako
otordua

2018ko OTSAILA 156. ALEA



IRAKURLAN

BURRUNBA GOXOA



Euskal Herrian 33.000 erlauntz daude; horietatik, Nafarroan 10.000. Erlauntzen inguruan solastatzean, anitzi ezta etorriko zaio burura, baina erlearen garrantzia ez da jaki goxo horren ekoizpena mugatzen, ezta gutiago ere. Hori dela eta, ale honetan erlearen garrantziaz ariko gara: sakonki aztertuko dugu gaur egun zein den etxe-abere horren etsairik handiena, eta gure eskualdean nola egiten zaion aurre. Erlearen tradizioa eta beregandik ateratako produktuak ere landuko ditugu, eta, akitzeko, hiztegi sorta bat aztertuko dugu. Gozatu gai interesgarri honekin!

Gaiari hasiera emateko, animalia honek gure herrian izan duen garrantzia oroitaraziko dugu, betitik baserriarekin lotua egon baita. Hala, erlea sakratua izan da; bekatua omen zen berau hiltzea. Gainera, erleak bizia galtzen zuenean, hil egiten zela erraten zen, hondarreko animaliak akabatu edo galdu egiten zirela erraten zen bitartean. Horri guziari, intsektu mota horrekin komunikatzeko modua gehitu behar zaio, abere guziekin hikaz mintzatzen zen artean, erlearekin zukaz egiten baitzen, errespetuaren adierazle.


Lehen, ez zen diruz erosten ahal, baina trukearen bidez eskuratzen ahal zen. Horrela egiten ez bazen, eritu egiten omen zen, eta, **ebatsiz gero**, ez omen zuen ezirik egiten, ezta kumerik ere.

Baserrietako heriotza-erritualetan ere parte hartze handia izaten zuten: etxeko andrea edo jauna hiltzen zelarik, berria eman behar izaten zitzaion intsektuari. Beran adibidez, erlauntzaren gainean kolpetxo batzuk eman, eta honako hau erraten omen zen: *“Etxeko andria il da ta egizu argizeri aunitz, zerura bialtzeko”*. Horrela, pentsatzen zen argizari gehiago sortuko zutela eta horrekin, bertze munduan hildakoaren bidea argituko zela.

Poliki-poliki, erlearen papera garrantzia galduz joan da Euskal Herrian, eta, egun, erran dezakegu berarekin lotutako tradizio horiek guziak desagertu egin direla. Hala eta guztiz ere, bistan da eginkizun nabarmena betetzen duela oraindik ere, nahiz eta bertze motako lanetara mugatu; polinizazioa batez ere.

Erran bezala, erlea fruta arbola, mahatsondo edo lekadunen polinizazioaz arduratzen da, bertzeak bertze. Horri esker, floraren %80 ernaltzea bermatzen da. Erlerik gabe ez genuke izanen ez almen-drarik, ez gerezirik, ez laranja-rik, ez ekilorerik, ez kalabazarik... Ondorioz, gizakiok jaten ditugun produktu gehienak desagertuko lirateke. Are gehiago, Albert Einstein zientzialariak erran zuen erleak **desagertuz gero**, lau urteren buruan gizakia ere desagertuko zela. Adierazpen hori kontuan hartu beharko genuke, arriskua benetakoa baita. Beraz, irakurle, ale honekin hausnarketarako tartea ireki nahi dugu.

LAN ETA LAN



Testuan, beltzez nabarmendu ditugu “desagertuz gero” eta “ebatsiz gero” moduak. Akaso, horrelako kasuetan, zalantza sortu izanen zaizu noizbait: nola idatzi behar da? “**desagertuz gero**” edo “**desagertu ezker**”? Batez ere, ahoskatzeko momentuan bigarren moduaren hautua eginen genukeela kontuan hartuz, zalantzak izatea ez da arraroa.

Gai horri dagokionez, hona hemen **Euskaltzaindiak** bere **26. arauan** adierazitakoa:

1. Kasu guztietan **-(e)z gero** idatz bedi:
 - hori eginez gero, hori egin duzunez gero
2. Ordukin, eta oro har denbora postposizio gisa, **ezker** ere idatz daiteke:
 - hamarrez gero / hamarrak ezker, zortziez gero / zortziak ezker, San Ferminen gero / San Ferminak ezker, atzoz gero / atzo ezker
3. **Honezker**, **horrezker** eta **harrezker** aditzondoak, era horretan idatziko dira, horrela erabili baitira euskararen literatura tradizioan, nahiz horrezker aditzondoaren maiztasuna beste biena baino askoz ere apalagoa den.

Euskaltzaindiak errandakoa ongi ulertu duzun ala ez ikusteko, ariketatxo bat prestatu dugu. Beraz, 26. araua kontuan harturik, ondorengo esaldiak ongi edo gaizki dauden erran beharko duzu, eta gaizki egonez gero, zuzendu egin beharko dituzu:









1. Etxean geratu ezker, izugarri aspertuko nintzateke.
.....
2. Sobera edan ezker, gauean piza egitera jaikiko zara.
.....
3. Azterketa ongi egin duzunez gero, gaindituko duzulakoan nago.
.....
4. Zortziez gero, denda guziak itxiak egoten dira.
.....
5. Bederatziak ezker, afaltzeko ordua da.
.....
6. Berandu atera da Mirari etxetik, baina, honez gero, aireportura ailegatu izanen da.
.....
7. Eguberriak ezker, ez dut berriz ere ikusi.
.....
8. Hagitz lotsatia zenezker, ez zen sobera solastatzen.
.....



HITZAK DANTZAN

ERLE-HIZTEGIA

Erlearen mundua hagitz zabala eta interesgarria denez gero, ariketa honetara etxe-abere horren munduari buruzko hainbat kontzeptu ekarri nahi izan ditugu. Lerro hauen azpian zenbait irudi aurkituko dituzu. Bada, zure lana izanen da irudi hauen azpian dauden definizioekin lotzea.

			
a) Erlekumea	b) Erlamandoa	c) Erle langilea	d) Erle erregina
			
e) Erlauntza / Kofoina / Erle-ontzia	f) Erlategia	g) Abaraska	h) Eztena

1. : Erle-ontzian goi-maila duen erlea eta parekorik uzten ez duena; erlauntzaren ama.
2. : Erregina eta nagiekin erlauntzako biztanleria osatzen duena. Antzua izaten da eta ezta sortzeko gaia garraiatzen du; ugariena izaten da.
3. : Erlerik handiena, alfer, nagi edo amu ere deitua. Horietako batek erregina ernaltzen du.
4. : Erle sortu berrien multzoa edo mukuru.
5. : Erleek, ezta gordetzeko, erlauntzaren barnean argizariz prestatzen dituzten hexagono formako zuloen multzoa.
6. : Erlearen bizitokia, zuhaitz baten hutsunea, harkaitz zuloa nahiz gizakiak antolatutako ontzi edo kutxa berezia.
7. : Erle-ontziek osaturiko multzoa.
8. : Erleak defentsarako erabiltzen duen gorputz atal zorrotza.



BITXILOREAK 1

ARERIO BELTZA



Erleari kalte egiten dioten arazo eta arrazoiak aipatzekotan, 1985. urtera salto egin beharko genuke, orduan zabaldu baitzen Asiako erlearen gaitza mundu osoan zehar: sortaldetik etorritako “Varro Destructor” izeneko akaroaz ari gara. Egun, oraindik ere, horren emaitza kaltegarriak pairatzen ditu erleak. Hala eta guztiz ere, testu honetan bigarren eraso nagusiari buruz solastatuko gara; Asiako liztor beltzari buruz. Hitz batzuk kendu ditugu testuan; beheko zerrendan aurkituko dituzu. Beraz, badakizu, hitz bakoitza dagokion lekuan kokatu beharko duzu:

- | | | | | |
|-----------|-------------|-------------|--------------|---------------|
| a) eginik | c) horrekin | e) gain | g) arren | i) haien |
| b) batera | d) digunez | f) emandako | h) dakigunez | j) bertzelako |

Liztor beltzak 2008an ailegatu ziren Bordelera, eta(1)...., 2010ean, Bidasoa aldean behinik behin, lehenbiziko habia aurkitu zen. Liztor hori loreen nektarrez eta(2).... azukreez elikatzeaz gain, intsektuak jaten ditu: batez ere, erleak. Eta hori da, azken finean, arazo nagusia; gure erleek kanpoko arerio berri honen aitzinean ez baitute zer(3)...., eta bigarren hauek ez dute barkatzen: erlauntzak harrapatzen dituztelarik, etxeko hozkailuak bailiran, hustu arte erasotu eta jaten dituzte.

Hala, liztor etorri berri honen populazio-garapenarekin(4)...., 2012an izurrite forma hartuz, benetako arazo bihurtu zen. Orduantxe erabaki zuten hemengo erlezainek arazoaren kontrako neurriak hartzea, eta honela,(5).... ekintzei esker, liztor beltzaren populazioa murriztea lortu zuten. Halere, oraindik ere, arazo handiak sortzen ditu.

Xiker Salaberria Berako erlezainarekin elkartu gara, eta berak arazoaren berri eman digu. Aipatu(6)...., boluntario moduan elkartu da erlezain talde bat. Beraiei esker eta bailarako Mankomunitateko laguntza ekonomikoaren laguntzaz, ba omen dute pertika bat eskuragarri.(7)...., liztor-habiak aurkitzen dituztelarik, pozoia sartzan diete eta bertako intsektu guziak akabatzen dituzte. Horretaz gain, hiru urte daramatzate bertzelako neurriak hartzen: udalak ekonomikoki laguntzen die arteak eta beharrezkoa den likidoa erosten. Gainera, liztor-habien erregistro bat eramaten dute, eta herritik kanpo dauden habiez arduratzen dira.

Malerrekan ere, gisa horretako talde-boluntario bat osatu dute erlezainek, eta horiek ere, lan bertsua egiten omen dute, bertako Mankomunitateak(8).... diru-laguntza txiki batekin. Baztanen, arazoari aurre egiten erlezainak ibiltzeaz gain, suhiltzaileak eta ehiztariak ere ari omen dira, eta han ere, Udalak emandako diru-partida bat dute.

Euskal Autonomi Erkidegoan, gobernuak protokolo bat ezarri zuen(9)...., Nafarroa Garaian ez dago halakorik. Eskualdeko erlezain boluntarioek hartzen dituzte neurriak geurean, baina zer gertatzen da neurri ofizialekin? Nafar Gobernuak momentuz ez du arazoaren nondik-norakoa neurtu. Baina garrantzitsua da gobernuak beharrezkoak diren neurriak hartzeaz(10)...., prebentzio-bidea garatu eta arazoa sakonki ikertzea, gure ekosisteman eragin larria izaten ari den izurritea ekidin aldera.



BITXILOREAK 2

ERLEEN EMARIA

Erlearen erremedioez inguratuta bizi gara: eztia, polena, erregina-jalea, propolia... Beraien pozoia ere hagitz ona omen da. Ekoizpenaren gibelean **izugarritzko (1)** lana egiten dute erleek, baita, **maitekiro (2)**, zaintzen dituzten erlezainek ere. Azter ditzagun banan-banan produktu horiek:

Eztia: prozesu konplexu baten ondorioz, erleak sortzen duen produktu naturala da. Arau zorrotzek babesten dute honen ekoizpena, garrantzi handiko jarduera ekonomikoa sortzen baitu: mundu osoa kontuan harturik, urtean milioi eta erdi tona ezti sortzen da.

Zertarako erabiltzen da? Hamaika **onura (3)** ditu: anemiaren eta toxikoen **kontrakoa (4)**, anti-septikoa eta antioxidatzailea da. Sukarra kentzeko, arnasbideetarako edota tentsioa jaisteko ona da.

Polena edo lore-hautsa: erleak, pilota moduan, loreetatik biltzen duen produktua da.

Zertarako erabiltzen da? Hesteari lana **erraztu (5)** egiten dio, pikorrek daramatzaten bitamina, mineral eta gainerako oligoelementuak hobeki xurgatzen lagunduz.

Propolia: erleak hainbat landaretatik **biltzen (6)** duen gai erretxinatsua da.

Zertarako erabiltzen da? Aktibitate biologiko zabala du, eta onddo, birus, hantura eta tumoreen aurka laguntzen du. Aktibitate immunoestimulatzailea eta antioxidatzailea ere baditu.

Erregina-jalea: erle langile gazteen buruan beren bizitzako bost eta hamalagarren egunen artean sortzen den produktua da. Erreginak larbak elikatzeko erabiltzen du.

Zertarako erabiltzen da? Antibiotiko naturala da, hezurren egituraketa **bizkortzen (7)** du, bertzeak bertze.

Argizaria: erleak sortzen duen produktua da. Sabeletan dituzten guruinek ezkata txiki batzuk sortzen dituzte, eta, ondoren, ahoarekin ore bat egiten dute hexagono itxurako gelatxoak egiteko. Erleak bere abaraskak eraikitzeke erabiltzen du.

Zertarako erabiltzen dugu? Kandelak egiteko, etxeetako solairuak eta altzariak garbitu eta atontzeko. Gaur egun ukenduetan edo kosmetikan anitz erabiltzen da.

Pozoia: erleak ziztatzeko gaituenean, larruazalaren barnera sartzen digun produktua da.

Zertarako erabiltzen dugu? Hainbat **gaitz (8)** sendatzeko edo samurtzeko ahalmena aitortzen zaio: infekzioak, hipertentsioa, artritis, erreuma desagertzeko edo goxatzeko. Erleari alergia diotenen ezin dute erremedio hau erabili.

Ongi ulertu al duzu? Orain zure txanda izanen da; lotu testuko hitzak beheko sinonimoekin:

ERNE SARIRAKO!

- | | | | |
|---------------|-------------|-------------|-------------------|
| a) eritasun | b) samurtu | c) amoroski | d) ikaragarritzko |
| e) suspertzen | f) probetxu | g) aurkakoa | h) metatzen |



ERANTZUNAK



LAN eta LAN (3. or.):

1. geratuz gero; 2. edanez gero; 3. Ongi; 4. Ongi; 5. Ongi; 6. honezkero; 7. Ongi; 8. zenez gero

HITZAK DANTZAN (4. or.):

1- d; 2- c; 3- b; 4- a; 5- g; 6- e; 7- f; 8- h

BITXILOREAK 1 (5. or.):

1- h; 2- j; 3- a; 4- b; 5- i; 6- d; 7- c; 8- f; 9- g; 10- e

155. aleko sariketa erantzunak – BITXILOREAK(5. or.):

1- e; 2- f; 3- j; 4- i; 5- h; 6- g; 7- c; 8- b; 9- d; 10- a

ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **6. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabazlearen izena agertuko dira.

Saria: **Lesakako
LINDDURRENBORDA
sagardotegian, bi lagunentzako
otordua**

155. aleko irabazlea:
**Miren Joxepa Etxenike Zubieta
Etxalarkoa**

ETXETIK PLAZARA liburua SALGAI

IKA euskaltegietan eta honako liburu-denda eta saltokietan:

- Beran; Agara eta Igone - Lesakan; Xagu - Arantzan; Ilargi okindegia;
- Igantzín; Bi Bide denda - Donezteben; Ostiz, Blas eta IKA euskaltegia
- Elizondon; Axular eta Nafarpress - Leitzan; Maimur, Astiz eta IKA euskaltegia.

6 eurotan, jantzi zure euskara eta lagundu gure lana!



OHARRA: erantzunak otsailaren 25a baino lehen bidal itzazu.



SARIRAKO ARIKETA

BITXILOREAK 2 (6. or.):

- | | |
|-----------|-----------|
| 1 - _____ | 5 - _____ |
| 2 - _____ | 6 - _____ |
| 3 - _____ | 7 - _____ |
| 4 - _____ | 8 - _____ |



ZATOZ EUSKALTEGIRA!!

EUSKARA
indartu nahi duzu?

Solasa aberastu,
irakurriz eta idatziz
giro ederrean
trebatu eta ikasi!

ZATOZ EUSKALTEGIRA!

Zeure herrian,
Ekainera arte,
astean 4 ordu

MAILA GUZTIAK
eta **EGA**

Matrikula zaitetz:

IKAbortziarik, 948 637 796,
bortziarik@ikaeuskaltegiak.eus

IKAmalerreka, 948 451 555,
malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

euskara
errazago
egiten **ika**

Aldizkari honen egileak:

**Bortziarik eta
Malerrekako IKA
Euskaltegiak**

Diseinua, marrazkiak
eta maketazioa:

Joseba Larratxe

Laguntzaileak:

**Nafarroako
Mendialdeko
EUSKARA
MANKOMUNITATEAK**

ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefonoa:..... Adina:.....

HORRA GURE HELBIDEAK

Bortziritako IKA Euskaltegia.
Arretxea 22, 31770 Lesaka.
bortziarik@ikaeuskaltegiak.eus

Malerrekako IKA Euskaltegia.
Rosa seminario 6, behea, 31740 Doneztebe.
malerreka@ikaeuskaltegiak.eus

ika